

Udazkenean antzemandako eskariaren suspertzea mantentzen ari da

Covid-19aren pandemiak zuzeneko eragina izan zuen zuraren merkatuan 2020ko udaberrian. Konfinamenduan zehar funtsezko deklaratuak, baso-jarduerak bere jarduerari eutsi zion. Zelulosa funtsezko elementua da produktu higienikoak, sanitarioak, enbalajeak eta zura egiteko, elementu energetiko gisa eta elikagaiak garraiatzeko edukiontziak egiteko, besteak beste, eta eskari handia mantendu zuen. Egur handien merkatuak, aldiz, geldialdi nabarmena jasan zuen.

Hala ere, udazkenean ikusi genuen intsinis pinuaren eskaria nabarmen handitu zela, eta joera hori oraindik ere mantentzen da. Horregatik, salneurrien inguruan erreferentzia batzuk aipatuko dizkizuegu.

Hona hemen, **intsinis pinuaren ustiaketatik lortzen diren produktu ezberdinetako gutxi gorabeherako salneurriak** (industrian sartzen direnekoak), **orientagarriak**:

Peia: 40-45 €/tm (7cm baino gehiagoko diametroa)

Enbor txikiak: 50-55 €/tm (18-30 cm-ko diametroa)

Zerrarako egurra: 60-70 €/tm (25 cm-tik gorako diametroa) Ustiaketa kostuek eta industriarako garraioak eragin handia izan dezakete pinudiaren ezaugarriaren arabera: zuhaitzaren tamaina, azalera, bideak eta azpiegiturak, distantzia eta helmuga industriaren kokalekua... 23,5 €/tm eta 37 €/tm arteko tartean.

Zutikako egurraren prezioa kalkulatzeko, egurra industrian sartzen deneko prezioari, ustiaketa kostua kendu behar zaio eta horri dagokion BEZ-a (% 12).